

HEMEROTEKA

Aurrekontuetako defizitak eta zor publikoa handitzearen beharra azpimarratuz, eskariak hazi eta sektore pribatuko jarduera bultzatuko dutela diote ekonomialari batzuek. Kontrako iritzia du Harry Shutttek. *Red Pepper* aldizkariako webgunean azaldu du zergatia.

Keynes problema da, ez soluzioa

Harry Shutt

◆ EKONOMIALARIA

1980KO HAMARKADAKO “iraultza” neoliberalak ez zuen erabat baztertu II. Mundu Gerraren ondoren politikan nagusi izan zen adostasun keynesiarra. Merkatuak liberalizatu eta globalizatu ziren, korporazioei eta finantzei askatasun handiagoa emanaz irabaziak egiteko aukerak bilatzeko. Baina ez zen aldatu uste ofiziala: gobernuek merkatuetan esku hartu behar dutela ekonomia hazkundera eta finantza-merkatuak babesteko. Benetan ironikoa da eskaintza-estrategia –zerga zuzenak murriztean oinarritua–, Reaganek AEBetan 1980ko hamarkadan aplikatutako ekonomia muina, keynesiar estiloko defizitaren finantzazioa izan zela funtsean, hazkundera bultzatzeko diseinua, nahiz eta gutxi jabetu ziren horretaz garai hartan.

(...) Esan liteke ideologia keynesiarrak jarri zuela abian baliabideen esleipen desegoki eta masiboa eta horrek, progresiboki 1980ko urteetatik, eraman duela mundu osoko merkatu ekonomia ia erabateko kolapsoraino. Horregatik, ondoriozta daiteke Keynesen teoria ekonomikoek orain arte, berak zioen bezala kapitalismoa salbatu baino, balio izan dutela porrot terminalera eramateko.

(...) Halere, porrot hori ulertu gabe, keynesiarrek jarraitzen dute ekonomia hazkundera maila (BPG) sostengatzeko konpromisoarekin –edo, ahal bada, 1973 baino lehenago lortutako mailetara igotzeko ahaleginan,

hori baita behar den minimoa hazkunderaren soberakina xurgatu ahal izateko–. Helburu hori lortzeko lasterketa desesperatuak eragin ditu gaur egungo ekonomia distortsio masibak eta desorekak, bereziki aurrekaririk ez duen zor publiko eta pribatu erabilgaitzaren zama.

(...) BPGaren hazkundera alferrik bilatzeak dakartzan kalteen ordez, eta geroz eta zentzu gutxiago daukan ‘erabateko enplegua’ xerkatu beharrean, ongizate ekonomiko adierazle sozialetan neurtu beharko litzateke etorkizunean, adibidez, osasun publikoaren bidez edo krimen mailaren bidez. BPGaren hazkundera esanguratsurik gabe, irabaziak modu bidezkoan banatu beharko litzateke honako oinarrietatik abiatuta: a) herritar guztiei oinarritzko errenta ordaintzea (denek gutxienezko segurtasuna ziurtatuz); b) norbanakoen irabazi osagarriak lortzeko aukerak mugatuz, gehieneko lan orduen edo lan urteen bidez eta/edo zerga progresibo altuen bidez. Irabazi nazionalen parte handiago bat masei banatzea (...). Azkar finantzatu ahal litzateke gaur egungo kapital errendimendu geroz eta erredundanteagoen kuota erraldoietik”.

(...) Ezkerrak egungo miseria kaotikotik ateratzeko modua zehaztu nahi badu, XXI. mendean sartu behar du eta urgentziazko kontu gisa alternatiba hauek serio eztabaidatzen hasi. ■



BERTSO BERRIAK

Maialen Velarde Mujika



ALBERTO ELOSEGI / XDZ

Kontxako estropadak

Doinua: Gregario edo laguntzaile naiz.

Gorri, moretan, urdin, berdeetan argitan, ilunagotan... kolore baten azpian zenbat, amets beraren borrokan. Bihotz TAUpTAdak arraun badira Kantauriaren besotan bat zutik, hamahiru tostan herri bat haien zai kostan Kontxa badator! Nahiz irakurri lehendabiziko lerrotan politena da ikusten dela gure herriko leihotan.

Orain lau urte, erronka heldu eta handitzen hasita Kontxa helburu mutil ta neska maila berean jarrita. Biak olatu berean irrist biak mareei segika biak arraunak bustita biak banderei eutsita. Garaia, arrauna denak aldatuz doazela ikusita aspertu ginen moilan geratzen gizonen zai eserita.

Liga testigu, indartsu dator Kaikuko marinela neure mesede faborito da zumaier nesken batela. Halere “Animo!” diotelako datorrena datorrela jakin joko horrela jolas bihur daitekela. Nahiz eta ohituraz esan “onenek irabazi dezatela” norbere herrian ospatu baietz baldin balira bezela! ■

